



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Basauriko Udala

**Gizarte Langile Teknikariaren lanpostua txanda irekian betetzeko prozesuaren deialdia eta oinarri espezifikoak. Lanpostuaren ezaugarriak: Administrazio Bereziko Eskala, azpieskala teknikoa, ertian-mailako teknikaria, A2 taldea.**

Alkateak 714/2026 Dekretua eman du, otsailaren 19an. Ebazpenak honako hau ezarzen du xedapen-zatian:

*Lehenengoa:* Oinarri hauen xede diren hautaprobeen deialdia egitea.

*Bigarrena:* Gizarte langile teknikariaren plaza bat (1) txanda irekian eta oposizio-lehiaketa sistemaren bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onestea. Plazaren ezaugarriak: Administrazio Bereziko Eskala, Azpieskala Teknikoa, Ertain-mailako Teknikariaren Klasea, A2 Taldea, nahitaezkoa den B2B2 hizkuntza-eskakizuna (2024ko urtarrilaren 1ean).

*Hirugarrena:* Oinarriok Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta horien laburpen bat EAOn argitaratzeko agindua ematea.

*Laugarrena:* Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal da Administrazioarekiko Auzietako Bilboko Atalean, berau argitaratzen den dataren biharamunetik bi hilabeteko epean. Bestela, hala nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahal da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoan. Hala xedatzen du Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikularekin bat.

Basaurin, 2026 otsailaren 20an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



**GIZARTE LANGILE TEKNIKARIAREN LANPOSTUA TXANDA IREKIAN BETETZEKO  
PROZESUAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK. LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:  
ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, AZPIESKALA TEKNIKOAK,  
ERTAIN-MAILAKO TEKNIKARIA, A2 TALDEA**

### 1. Deitutako plazak

Gizarte langile teknikariaren plaza bat txanda irekian eta oposizio-lehiaketa sistema-ren bidez betetzeko deialdia egiten da. Plazaren ezaugarriak: Administrazio Bereziko Eskala, Azpieskala Teknikoa, Ertain-mailako Teknikariaren Klasea, A2 Taldea.

Deitutako plaza 2023. urteko lan-eskaintza publikoari dagokio.

Deitutako plazaren kopurua handitu ahalko da, sortuz doazen lanpostu hutsak deialdi honetara gehituta, alkate udalburuaren ebazpen bidez. Plazaren kopurua handitu nahi izanez gero, baina, gainditu dutenen zerrenda argitaratzeko izapidearen aurretik egin beharko da.

Eginkizunak:

- Ataleko prozesu edo espedienteak diseinatzea eta kontrolatzea, eta prozesuen normalizazioa ebaluatzea.
- Atalean kalitatea ezartzeko eta kontrolatzeko prozesuak kudeatzea.
- Atalaren proiektuak, programak eta zerbitzuak kontrolatzea eta ebaluatzea.
- Udalaren zeharkako proiektuetan parte hartzea —Udalbatzak esleituz gero—.
- Postuaren ardurapeko prozesuen adierazleak definitu eta kontrolatzea.
- Atalean definitutako hobekuntza-planak aurrera eramatea.
- Lanpostuaren ardurapeko prozesu eta jarduerak hobetzeko adierazleak kontrolatzea eta aukerak identifikatzea.
- Prozesuetan esku hartzen dutenak koordinatzea eta beren arteko lankidetzaren egoia izan dadila bermatzea.
- Lanpostuari lotutako txostenak eta memoria teknikoak osatzea.
- Lanpostuaren berezko gaietan kudeaketa-lanak egitea, hirugarrenekin batera.
- Errekurtsoak eta erreklamazioak ebaztea —Administrazio Orokorreko teknikarien kasuan—.
- Hala eskatzen duten prozesu eta dokumentuei buruzko ziurtagiriak ematea.
- Atalaren prozesuetan esku hartzea, arloburuek definitutako neurrian.
- Arloburuak esleitutako programen ekonomia- eta finantza-kudeaketa egitea.
- Udalak lanpostuaren ardurapeko gaietan eskatu eta/edo eman ditzakeen dirulaguntzak kudeatzea.
- Gizarte-ongizatearen arloko udal-espedienteak kudeatzea-
- Beste administrazio batzuetako gizarte-izaerako laguntzak eta/edo programak kudeatzea eta izapidetzea.

### 2. Betekizunak

Uztailaren 1eko 2311/2022 Alkatetza Dekretu bidez onetsitako Oinarri Orokorretan ezarritakoez gain, honako betekizun hauek ezartzen dira:

- a) Honako hauen gradu- edo lizentzia-titulua edukitzea edo berau eskuratzeko tasak ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen amaiera-datan: gizarte laneko gradua edo diplomatura unibertsitate-titulua edo baliokidea. Atzerriko tituluak dituztenek egiaztatu beharko dute dagokion baliozkotzea edota, bestela, homologazioa jasotzen duen egiaztagiria badutela.
- b) Azterketa-eskubideei dagokien tasa ordaindua izatea. A2 Azpitalderako tasa 19,80 euro da.
- c) Euskararen B2B2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duen ziurtagiria izatea, edo, hala badagokio, 8.3 oinarrian ezarritakoaren arabera lortzea.



### 3. Eskabideak aurkeztea

#### 3.1. *Epea*

Hautaketa-prozesuan onartua izateko eskabide normalizatuak hogeita (20) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi honen laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita.

#### 3.2. *Eskabideak bete beharreko baldintzak*

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek Internet bidez eskatu beharko dute: Basauriko Udalaren webgunean (<https://sede.basauri.eus/eu/>) dagoen eskabidea bete beharko dute.

Horretarako baliabiderik ez badaukate, Udalak arreta presentzialerako gune bat egotikiko du, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, izangaien esku jartzeko izapideak egiteko beharrezko baliabide informatikoak.

Izangaiak eskabidearen atal guztiak bete beharko dituzte, eta adierazi eskatutako betekizun guzti-guztiak betetzen dituztela, 2. oinarrian xedatutakoarekin bat.

Beraz, izangaiak honako hauek jaso beharko dituzte eskabidean:

- Datu pertsonalak.
- Oposizio-faseko ariketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.
- Alegatutako ikasketa-titulu ofiziala, deialdian parte hartzeko betekizun gisa eskatzen dena.
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna, edukiz gero. Bestela, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ahal da deialdi honen 8.3 oinarrian (hirugarren ariketari buruzkoa) ezarritako modu eta epean.
- Alegatutako merezimenduak.

Hautaketa-prozesuari buruzko argibideak edo informazioa behar izanez gero, posta elektronikoko bidez eskatuko dira, eskabide-orriarekin batera emango den helbidean.

Eskabideak aurkeztuko dira helbide elektronikoko horretan ezarritako prozedura elektronikokoaren bidez. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean behar bezala adierazi beharko da betekizunak betetzen direla, eta alegatutako merezimenduak zerrendatu beharko dira, baina ez da beharrezkoa izango eskabidearekin batera egiaztagiriak aurkeztea: parte hartzeko betekizunen ziurtagiriak eta alegatutako merezimenduenak aurkeztu beharko dira Epaimahaiak edo Giza Baliabideen Atalak eskatzen dituen unean. por el Tribunal o por el Departamento de Recursos Humanos.

### 4. Dokumentuak aurkeztea

#### 4.1. *Parte hartzeko betekizunen egiaztagiriak*

2. oinarrian aipatutako parte hartzeko betekizunen egiaztagiriak aurkeztuko dira hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratu eta gero. Hala xedatzen du 8. oinarriak. Alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira Epaimahaiak edo Giza Baliabideen Atalak eskatzen dutenean, 8 b) oinarriarekin bat.

Oinarri hauetan ezarritako epean eskatutako dokumentazioa aurkezten ez dutenek, edo aurkeztutako horretatik ondorioztatzen bada ez dutela betetzen 2. oinarrian aurreikusitako betekizunen bat, praktiketako edo karrerako funtzionario izendatuak izateko eskubide guztiak galduko dituzte, eta horrek, gainera, ez du eragotziko hasierako eskabidea faltsutzeagatik sor daitekeen erantzukizuna.

Ez da beharrezkoa izango Basauriko Udalaren langileen espedientean dagoeneko dauden dokumentuak aurkeztea. Kasu horretan, nahikoa izango da epe barruan alegatzea.

#### 4.2. *Dokumentuak itzultzea eta konpultsatzea*

Espainiako nazionalitatea ez dutenek euskarara edo gaztelaniara ofizialki itzulita aurkeztu beharko dute adierazitako dokumentazio osoa. Itzulpena, beraz, dagokion



konsultatuak edo bulego diplomatikoak gaitutako zinpeko itzultzaileak egindakoa izan beharko da.

Deialdian parte hartzeko betekizunak egiaztatzeko, jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira, ez bada ez dela beharrezkoa, 4.1 oinarriaren amaieran xedatutakoaren arabera.

## **5. Izangaiak onartzea**

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartuen eta baztertuen zerrenda onetsiko da, alkatetza dekretu bitartez. Zerrenda horretan, baztertze-arrazoiak eta eskabidearen akats edo hutsuneak zuzendu behar dituzten kasuak zehaztu beharko dira. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

10 egun balioduneko epea egongo da akatsak edo ez-betetzeak konpontzeko edo onartuen eta baztertuen zerrendaren aurkako erreklamazioak jartzeko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera. Horren ostean, Alkatetzak beste ebazpen bat emango du, onartuen eta baztertuen zerrenda onartzeko, eta ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Erreklamazio berririk aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da, automatikoki.

Izangai bat hautaketa-prozesuan onartzeak ez du eragotziko Administrazioak baztertzea, egiaztatzen baldin bada ez dituela onartua izateko eskatutako betekizunak betetzen. Kasu horretan, Epaimahaiak, interesdunari entzun ondoren, eta hala badagokio, izangai hori prozeduratik baztertze eabazpen-proposamena bidaliko dio Alkateari.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzen duen Dekretuan baztertu gisa agertu diren izangaiek errekurtsioak aurkezten badituzte eta, hautaprobak egiteko datan, errekurtsio horiek oraindik ebatzi gabe badaude, izangai horiek hautaprobak egin ahal izango dituzte, nahiz eta ez duten baliorik izango aipatutako errekurtsioak ezesten badira.

## **6. Epaimahai kalifikatzailea**

6.1. Alkatetza-dekretu bidez ezarriko dira bai Epaimahai Kalifikatzailearen kideak, bai lehen ariketa egiteko tokia, data eta ordua.

6.2. Epaimahaiaren osaera Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluan ezarritakoaren arabera izango da, eta epaimahaiburu batek, idazkari batek eta lau kidek osatuko dute. Kide horiek guztiek deialdian parte hartzeko eskatutako maila bereko edo altuagoko titulazio akademikoa izan beharko dute. Epaimahaiko kideek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, zeinak hitza bai, baina ez baitu botorik izango. Epaimahaiaren osaera bat etorriko da kideen inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioekin, eta, era berean, emakumeen eta gizonen arteko parekidetasunera joko du, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikulua xedatutakoaren arabera.

Epaimahaikideetako bat Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatuko du.

6.3. Epaimahaiak aholkulariak deitu ahal ditu. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, hautapen-prozesuaren proba batzuetan edota guztietan. Hala xedatzen du 11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoak, Euskal Enplegu Publikoarenak.

6.4. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren bat ematen bada, Epaimahaiko kideek ezingo dute organo horretan parte hartu, eta alkate udalburuari horren berri eman beharko diote. Lege beraren 24. artikulua arabera, izangaiek epaimahaikideak errekusatu ahal dituzte, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoren bat ematen denean.

6.5. Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoenerako, Epaimahaiaren jarduketa-prozedurak bat egin beharko du uztailaren 1eko 2311/2022 Alkatetza Dekretuaren bidez onartutako Oinarri Orokorretan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15-19 artikuluetan xedatutakoarekin.



## 7. Deialdiak eta jakinarazpenak

Alkateak eta Epaimahaiak deialdiari buruz hartutako erabakiak, emaitzak, kalifikazioak eta bestelako jakinarazpen eta ebazpenak Interneten argitaratuko dira, Basauriko Udalaren lehen adierazitako helbide elektronikoan, egoki irizitako bestelako publizitate-bide erabiltzeko aukeraren kalterik gabe.

## 8. Hautaketa-prozesua

Izangaiak hautatzeko, oposizio-lehiaketa bidezko sarbide libreko sistema erabiliko da: lehenik eta behin, hiru ariketaz osatutako oposizio-fasea egingo da, eta, ostean, merezimenduak baloratzeko lehiaketa-fasea. Prozesuaren osagarri gisa, praktikaldia egongo da.

Epaimahaiak ariketen hurrenkera aldatu ahalko du, edo egun berean zenbait proba pilatu, aurretiaz udal-webgunean horren berri emanda.

### HAURDUNALDIA ETA EDOSKITZAROA

Haurdun edo edoskitzaroan dauden emakumeek egokitzapen materialak eskatu ahalko dituzte. Horretarako, Langile eta Antolaketa Atalari jakinarazi beharko diote, probak egin baino bost egun balioudun lehenago, gutxienez. Behar bezala egiaztatutako haurdunaldi edo erditzea dela-eta izangairen batek ezin badu hautaketa-prozesua osatu edo ezin badu ariketaren bat egin, bere egoera prozesua amaitzearen eta atzeratutako faseak gainditzearen baldintzapean geratuko da. Fase horiek atzeratu bai, baina ezingo da kaltetu gainerako izangaiek prozesua zentzuzko tarte batean ebazteko duten eskubidea. Epaimahaiak baloratu beharko du hori, eta, nolana ere, atzeratutako faseak egin beharko dira hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu aurretik.

Oinarri orokorretan xedatutakoaren kalterik gabe, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendaren ostean deialdi honi buruz egindako iragarki guztiak Udalaren iragarri-taulan eta webgunean argitaratuko dira.

### A) Oposizio-fasea (*gehienez, 40 puntu, euskara-proba kenduta*)

Oposizio-fasean, hiru ariketa egin beharko dituzte izangaiek, denak nahitaezkoaketa baztertzailak.

#### 8.1. Lehenengo ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila) Jakintza teorikoen testa

Ariketa horretan, hoguei (20) puntu lortu ahalko dira, gehienez. Zati bi izango ditu, bata bestearen atzean egin beharrekoak, egun berean. Epaimahaiak atsedenerako tartea eman ahalko die izangaiei, ariketa baten eta bestearen artean.

##### a) Lehenengo zatia:

Oinarri hauei dagokien gai-zerrendaren zati orokorreko edukiei buruzko galderak idatziz erantzutea (I. eranskina, 1-14 gaiak). Galdera bakoitzak aukerako lau erantzun izango ditu.

Puntuazio zuzena izango da ondo dauden erantzunen kopurua ken akats kopuruaren herena ( $P = O - A/3$ ). Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira akats gisa hartuko.

Ariketak, gehienez, ordubete (1) iraungo du. Zati horren amaierako puntuazioa 0-5 puntu bitartekoa izango da.

##### b) Bigarren zatia:

Epaimahaiak gai-zerrendaren zati espezifikoa buruz egindako galderak idatziz erantzutea (Eranskina, 15-60 gaiak), Epaimahaiak berak ezarritako denboran.

Ariketa hori kaifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, laburtzeko gaitasuna, eta azalpenen argitasuna eta zuzentasuna.

Zati horren gehieneko puntuazioa 0-15 puntu izango da, eta bi dezimal onartuko dira.



Lehen ariktaren puntuazioa izango da zati bietan lortutakoaren arteko batuketa. Azken puntuazioan hamar (10) puntu edo gehiago lortzen ez duten izangaiek kanporatu egingo dira.

### 8.2. Bigarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzalea)

Erantsitako gai-zerrendaren zati espezifikoa buruz (I. eranskina) Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko bat edo gehiago ebaztea.

Ariketa hori egiteko, eta ariktaren izaera eta edukia aintzat hartuta, Epaimahaiak zehaztutako kodeak eta parekoak edo bestelako material teknikoa besterik ezingo dute erabili izangaiek.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hogeita (20) puntura bitartean kalifikatuko da, eta gutxienez hamar (10) puntu lortzen ez dutenak kanpoan geratuko dira.

Ariketa hori kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, laburtzeko eta aurkeztutako gaiak aztertze gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta azalpenen argitasuna eta zuzentasuna.

### 8.3. Hirugarren ariketa. (borondatezkoa eta baztertzalea) Hizkuntza-eskakizuna egiaztatze proba

Ariktaren xedea da euskarako B2B2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea. Ariketan «gai» ala «ez gai» kalifikazioa lortuko da.

Euskara-proba egiteko salbuetsita egongo dira hura hasi aurretik Epaimahaiari egiaztatzen diotenak egoera hauetako batean daudela:

8.3.1. 2. hizkuntza-eskakizuna, hori baino goragokoa, edo horren baliokidea den titulua edukitzea, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat.

8.3.2. Proba egiteko salbuetsita egotea, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatze salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera.

Edozelan ere, euskarako edozein titulu edo ziurtagiri egiaztatze gehiengo epea izango da euskara-ariketa egiteko data.

Hizkuntza-eskakizuna honela egiaztatuko da:

- a) IVAPek, HABEK, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako ziurtagiriak edo tituluak dituztenek baimena eman ahalko diote Basauriko Udalari, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea betetzean, ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten.
- b) Aurreko paragrafoan aipatutakoez bestelako euskara-ziurtagiri edo -tituluak dituztenek, Udalari egiaztatze baimenik ematen ez diotenek, edo adierazitako dataren ondoren lortzen dituztenek alegatutako tituluaren edo ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute, euskara-proba egin aurretik.
- c) 47/2012 Dekretuaren arabera hizkuntza-eskakizunaren azterketa egiteko salbuetsita daudenak ikasketak osorik edo zati batean euskaraz egin izanagatik, hala adierazi beharko dute eskabidean, eta, euskara-proba egin aurretik, ikasketak burutu dituzten zentroak edo unibertsitateak emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute.

### B) *Lehiaketa-fasea (gehienez, 16 puntu)*

Lehiaketa-fasea hasiko da oposizio-fasea amaitu eta gero, eta bigarren hori gainditu dutenek hartuko dute parte. Lehiaketa-fase horretan, izangaiek eskabideak aurkezteko epean alegatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Gero, merezimendu horiek behar bezala egiaztatzen beharko dira, Epaimahaiak edo Giza Baliabideen Atalak emandako epean, zeina Udalaren iragarki-taula elektronikoan eta udal-webgunean argitaratutako iragarkian jakinaraziko baita. Merezimenduak baloratuko dira oinarri hauetan



ezarritakoaren arabera, eta ezingo da baloratu bestelako merezimendurik. Ez da baloratuko izena emateko eskabidean alegatu ez den merezimendurik, espediente pertsonalean egon arren edo Basauriko Udalak berak dokumentazio hori eduki arren. Bestalde, bakar-bakarrik baloratuko dira eskabideak aurkezteko epearen amaiera-datara arteko merezimenduak.

#### 1. Antzinasuna

Administrazio publikoetan, gizarte langile lanpostuan emandako zerbitzuengatik (A Taldea, A2 Azpitaldea): 2,50 (bi eta berrogeita hamar) puntu, zerbitzu-urte bakoitzeko edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko, 12 (hamabi) puntuko mugarekin.

Nolanahi ere, zerbitzua lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan emandako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, lanbide-esperientziaren ondorioetarako, aintzat hartuko da izangaiek senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzia-egoeran emandako denbora; amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketan edo baimenetan emandako denbora, eta, emakumezko enplegatu publikoen kasuan, genero-indarkeriagatik baimenetan emandako denbora. Hala xedatzen du Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1 c) artikulua.

#### 2. Prestakuntza

Gehienez, 4.00 (lau) puntu lortu ahalko dira:

2.1. Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoaren 35. artikuluan eta Unibertsitate-ikasketen antolaketa eta horien kalitatea bermatzeko prozedura arautzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuan araututako titulazio akademiko ofizialengatik, baldin eta titulu horiek ez badira deialdiaren betekizuna eta baliozkotasun akademiko ofiziala duten tituluak emateko Administrazioak aitor-tutako gaitasuna duen irakaskuntza-zentro publiko edo pribatu batek emandakoak badira, honako xehetasun hauen arabera:

- Lizentzia-, ingeniaritza- edo gradu-titulua (MECES 3) edukitzeagatik: 2,00 (bi) puntu.
- Gradu-titulua (MECES 2), edo ingeniaritza- edo diplomatura-titulua edukitzeagatik: 1,50 (bat eta berrogeita hamar) puntu.
- Unibertsitate-master ofizial baten titulua edukitzeagatik: 1 (bat) puntu.

Ez dira baloratuko merezimendu gisa alegatutako goragoko beste bat lortzeko behar diren tituluak.

Unibertsitate-irakaskuntza bereko zenbait ziklo gainditu izana egiaztatzen duten izangaiei bakar-bakarrik baloratuko zaie egiaztatutakoetatik ziklo gorenari dagokion titulua, izan merezimendu gisa, izan prozesuan parte hartu ahal izateko titulu gisa. Balorazioa harekin lortutako MECES mailaren arabera izango da, ez izendapenaren arabera.

Gai berari buruzko unibertsitate-titulua dutenei zuzendutako egokitze-ikastaro baten bidez lortutako unibertsitate-graduaren titulua eta jatorrizko titulua bat eta bakartzat hartuko dira.

Gradu- eta unibertsitateko master-tituluaren bidez MECES 3 maila egiaztatzen denean, unibertsitate-masterra ez da merezimendutzat baloratuko, baldin eta deialdian MECES 3 mailako lizentziaturak, ingeniariak edo arkitekturak dituzten izangaiek parte hartzen badute.

Inolaz ere ez dira baloratuko Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluan amaierako zatian eta Unibertsitate-irakaskuntzen antolaketa eta horien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren VIII. kapituluaren araututako berezko tituluak.



- 2.2. Gaztelaniaz besteko Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak ezagutzea baloratuko da, zehaztutako mailetan eta honako taula honen arabera:
- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila: 0,50 puntu (puntu erdi), hizkuntza bakoitzeko.
- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila: 1,00 (bat) puntu, hizkuntza bakoitzeko.
- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila: 1,50 (bat eta erdi), hizkuntza bakoitzeko.
- Tituluak egiaztatuko dira baliozkotasun akademikoa duten tituluak emateko le-galki gaitutako irakaskuntza-zentroek emandako ziurtagiri ofizial bidez.
- Edozelan ere, hizkuntza merezimendu moduan baloratzeko, aurkeztutako ti-tuluek egiaztatu beharko dute hizkuntza-ezagutzak lau hizkuntza-gaitasunak biltzen dituela (ahozko ulermena, idatzizko ulermena, ahozko adierazpena eta idatzizko adierazpena).
- Hizkuntza bakoitzaren ezagutza-maila gorena bakarrik puntuatuko da.

#### *Lehiaketa-fasearen puntuak, gehienez*

Lehiaketa-fasean, guztira, 16 (hamasei) puntu lortu ahalko dira, gehienez.

Oposizio-faseko ariketak amaitu eta lehiaketa-faseko merezimenduak baloratu eta gero, Epaimahaiak hautaketa-prozesuaren fase biak batu, eta sailkapen-hurrenkera ezarriko du, txikienetik handienara.

### **9. Prozeduraren emaitzak, eta dokumentuak aurkeztea**

Hautaketa-prozesuaren amaierako kalifikazioa izango da ariketetan lortutako puntuazioen batuketa (betiere, ariketak gainditu baldin badira). Berdinketa egonez gero, oposizio-fasearen bigarren ariketan puntu gehien lortu duenaren alde ebatziko da.

Hautaketa prozesua amaitutakoan, Epaimahaiak Udalaren helbide elektronikoan (7. oinarria) argitaratuko ditu gainditu duten izangaien behin-behineko kalifikazioak, guztira lortutako puntuazio handienetik txikienera antolatuta eta hautatutakoak nortzuk diren berriaz adierazita. Hautatuen kopuruak ezingo du izan deitutako lanpostuena baino handiagoa.

Gainditu duten izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzen den dataren biha-ramunetik aurrera, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Epaimahaiak, hala badagokio, erreklamazioak ebatzi, eta hautaketa-prozesua gain-ditu duten izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Jarraian, praktiketako funtzionario izendatuak izateko proposatutako izangaien ze-rrenda argitaratuko du Epaimahaiak, eta 15 egun balioduneko epea irekiko du, izangai horiek parte hartzeko 2. oinarrian jasotako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen duten dokumentu konpultsatuak aurkez ditzaten. Honako dokumentu hauek ere aurkez-tu beharko dituzte:

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.
- Izangai atzeritarrek Udalaren jakinarazpen bat jasoko dute, non zehaztuko baita beren egoera dela-eta nahitaez zein agiri aurkeztu behar dituzten.
- Zinpeko adierazpena, non jasoko baita izangaia ez dagoela ez funtzio publikoe-tan jarduteko desgaituta, ez edozein administrazio publikotako zerbitzutik dizipli-na-espediente bidez baztertuta, ez eta abenduaren 26ko 53/1984 Legean herri administrazioetako langileentzat aurreikusita dauden ezintasunerako eta bate-raezintasunerako lege-arrazoietan sartuta ere.
- Espainiako nazionalitaterik ez duten izangaiek zinpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, eta adierazi beren estatuan funtzio publikora sartzea galarazten dien diziplina-zigorrik edo kondena penalik ez dutela.



- e) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua egiaztatu beharko dute, organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bitartez.
- f) Bestalde, hautatutako izangaiek egiaztatu beharko dute ez daukatela oinarri hauen arabera dagozkien eginkizunak betetzea galarazten dien gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik. Horretarako, dagozkien proba eta osasun-azterketak egin beharko dituzte, Basauriko Udalaren lan-osasun zerbitzuetan. Lanpostua betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzeke osasun-probak eta osasun-azterketa egiteko deialdia era pertsonalizatuan egingo da.

Aipatutako epean, eta ezinbesteko arrazoiak ematen direnean salbu, izangaiek ez badute dokumentazioa aurkezten, edo ez badute egiaztatzen eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela, ezingo dute izendatuak izan, eta beren jarduketa guztiak balio-gabetu egingo dira. Horrek ez du eragotziko eskabidean faltsukeria erabili izanagatik sor litekeen erantzukizuna leporatzeko aukera. Kasu horretan, hautaketa-prozesurako emaitzan lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera ordeztuko dira, aipatutako agiriak aurretiaz aurkeztu eta gero.

#### **10. Praktika- eta prestakuntza-aldia**

Sei hilabeteko praktika- eta prestakuntza-aldia egingo da, uztailaren 1eko 2377/2022 Alkatetza Dekretuaren Oinarri Orokorren hamaikagarrenean xedatu bezalaxe.

#### **11. Izendapena eta lanpostuaz jabetzea**

Basauriko Udalaren karrerako funtzionario izendapena egingo da uztailaren 1eko 2377/2022 Alkatetza Dekretuaren Oinarri Orokorren hamabigarrenak ezarritakoarekin bat.

#### **12. Lan-poltsak**

Hautaketa-prozesu honen emaitzekin, lan-poltsa eratuko da, oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten izangaiekin. Hasieran, 3 urteko iraupena izango du lan-poltsa horrek, eta aldi baterako langile-beharrizanak betetzeko baliatuko da. Lan-poltsa hori kudeatuko da Basauriko Udalaren Lan-poltsei buruzko Araudian ezarritakoaren arabera, jarraian datorren paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat eratutako lan-poltsa agortzen bada, beste lan-poltsa batzuen aurrean lehentasuna izango dute nahitaezkoak eta baztertzailak diren proba gehien gainditu dituztenek osatutako zerrendek, gainditutako proba horietan guztira lortutako puntuen hurrenkeran.

Berdinketarik egonez gero, oposizio-faseko bigarren ariketan kalifikazio altuena lortu duen izangaiaren alde ebatziko da.

#### **13. Izaera pertsonaleko datuak babestea**

Hautaketa-prozesuan zehar jasotako edo sortutako izaera pertsonaleko datuak datuen babesaren alorrean indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Eskabideetan emandako informazio osoa fitxategi batean jasoko da. Fitxategi hori bakar-bakarrik erabiliko da hautaketa-prozesua eta bitarteko funtzionarioak kontratatzeke sortuko den lan-poltsa kudeatzeko.

Deitutako plazetara aurkezten direnek espresuki baimentzen dute segurtasun-neuriak behar dituzten eta hautaketa-prozesurako beharrezkoak diren datuak tratatzea.

Hautaketa-prozesuan zehar emandako datuak laga ahalko zaizkie eskatzen dituzten beste administrazio publiko batzuei. Izangaiek nahi badute beren titulartasunpeko izaera pertsonaleko datuak lagatzea, espresuki baimendu beharko dute.

Hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenen informaziorako eskubidea bermatzeko, prozesuko zerrendak Internetetik kontsultatu ahalko dira, Basauriko Udalaren lehen adierazitako helbide elektronikoan.



Zuzentzat joko dira eskabidean adierazitako helbidea, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoa. Eskabidea egiten duenari dagokio, eskusiboki, egon daitezkeen akatsak zuzentzea edo, aldaketarik egonez gero, Epaimahaiari horren berri jakinaraztea.

Jakinarazpenik egin behar izanez gero, eskabidean adierazitakoa hartuko da jakinarazpenetarako helbidetzat, baldin eta, geroago, espresuki eta sinesgarriro besteren bat adierazten ez bazaio deialdia egin duen agintaritzari.

#### **14. Gorabeherak**

Epaimahaiak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak ebazteko eta hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztiari buruz.

Deialdia, oinarriak eta horietatik eta Epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio-egintza guztiak inpugnatu ahalko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, aurreikusitako modu eta epeetan.

**ERANSKINA****1. Gai komunak**

1. gaia: Espainiako Konstituzioa. Atariko titulua. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak (EK: atariko titulua eta I. titulua).

2. gaia: Europar Batasuna. Europako erakundeak: Parlamentua, Batzordea; Europar Batasuneko Kontseilua eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegia. Legegintza-jarduera, zuzenbide-iturriak. Kontzeptua: Erregelamenduak, zuzentarauak eta erabakiak.

3. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak: eskusiboak, lege-garapenekoak eta betearazleak (10-23 artikulua).

4. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua (II). Euskal Herriaren aginteak (II. titulua). Ogasuna eta Ondarea: Ekonomia Ituna. (III. titulua).

5. gaia: Udalerria. (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, II. titulua, 11. artikulua). Toki-erakundeen lurraldea eta biztanleria (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, II. titulua, I. kapitulua, 12-17 artikulua). Toki-erakundeetako buruzko xedapen orokorrak. I. kapitulua. Jardun-araubidea (46-54 artikulua).

6. gaia: Enplegu publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; Administrazio publikoetako langileak (8-13 artikulua). Enplegu publikoaren eskubideak: indibidualak eta modu kolektiboan egikaritutakoak. III. titulua. I. kapitulua (14-15 artikulua). Lanbide-karrerarako eta barne-sustapenerako eskubidea. Jardunaren ebaluazioa. III. titulua. II. kapitulua (16-20 artikulua). Ordainsari-eskubideak. III. titulua. III. kapitulua (21-30 artikulua). Enplegu publikoaren betebeharrak. Jokabide-kodea. III. titulua. VI. kapitulua. (52-54 artikulua).

7. gaia: Enplegu publikoa (II). Administrazio-egoerak (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, VI. titulua). Langileen administrazio-egoerak euskal administrazio publikoetan (11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena, X. titulua). Hizkuntza-normalizazioa (11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena, XIII. titulua).

8. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-egintzak: III. titulua. I. kapitulua: Administrazio-egintzen betekizunak (34-36 artikulua). II. kapitulua: Egintzen efikazia (37-46 artikulua). III. kapitulua: Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. (47-52 artikulua).

9. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena. Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak (IV. titulua). Prozeduraren bermeak (I. kapitulua). Prozeduraren hasiera (II. kapitulua). Prozeduraren antolamendua (III. kapitulua). Prozeduraren instrukzioa (IV. kapitulua). Prozedura amaitzea (V: kapitulua). Administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatua (VI. kapitulua). Betearaztea (VII. kapitulua).

10. gaia: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko titulua, I. kapitulua: xedapen orokorrak. II. kapitulua: administrazio publikoaren organoak. 1. atala. Administrazio-organok. 2. atala. Eskumena. 3. atala. Kide anitzeko organoak. 1. azpiatala. Funtzionamendua (1-18 artikulua). 4. atala. Abstenitzea eta errekusatzea (23-24 artikulua).

11. gaia: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko titulua, III. kapitulua: zehatzeko ahalaren printzipioak. IV. kapitulua: administrazio publikoaren ondare-erantzukizuna.

12. gaia: 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa. Atariko Titulua (1-2 artikulua). Definizioa, indarraldia eta aurrekontu-printzipioak. I. titulua, I. kapitulua (3-5 artikulua). Aurrekontu Orokorren edukia. I. titulua, II. kapitulua (6-9 artikulua). Aurrekontu Orokorren egitura. I.



titulua, III. kapitulua (10-13 artikulua). Aurrekontu Orokorra prestatzea eta onestea. I. titulua, IV. kapitulua (14-18 artikulua).

13. gaia: Toki erakundearen erregelamenduak egiteko ahala. (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, V. titulua, I. kapitulua, 49. artikulua). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 1. xedapen gehigarria. Basauriko Udal Araudi Organikoa ([www.basauri.eus](http://www.basauri.eus)). II. titulua: Udalaren beharrezko antolaketa. III. titulua: Udalaren beharrezko organoen funtzionamendua. IV. titulua: Udalaren antolaketa osagarria. VII. titulua: Hizkuntza ez-diskriminatzailea erabiltzea.

14. gaia: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa. Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (osoko bilkurak 2024ko maiatzaren 30ean eman zion behin betiko onespena, eta 2024ko abuztuaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 150 zenbakikoan, argitaratu zen).

## 2. Zati espezifikoak

15. gaia: 2/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. I. titulua: xedapen orokorrak. II. titulua: Prestazioak eta zerbitzuak, funtzioen eta lurraldearen antolamendua, eta plangintza, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren.

16. gaia: 2/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. III. titulua: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eskumen, antolamendu, kontsulta eta partaideztako araubidea. IV. titulua: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantziazioa.

17. gaia: 2/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. V. titulua: Ekimen pribatuaren esku-hartzea. VI. titulua: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema garatzea eta hobetzea.

18. gaia: EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa (2023-2026).

19. gaia: 2/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. V. titulua: Ekimen pribatuaren esku-hartzea. VI. titulua: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema garatzea eta hobetzea.

20. gaia: 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte-zerbitzuen Erabiltzaileen eta Profesionalen eskubide eta betebeharren Gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea.

21. gaia: 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Agiriarena.

22. gaia: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. I. kapitulua: xedapen orokorrak. II. kapitulua: zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak lortzeko baldintzak eta irizpideak.

23. gaia: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. III. kapitulua: prozedurazko xedapenak.

24. gaia: 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. IV. kapitulua: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak arautzea.

25. gaia: 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzkoa, eta 16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa, gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena.

26. gaia: 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa.

27. gaia: 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena.

28. gaia: 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena.

29. gaia: Estatuko lege-esparrua haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesteko: 1/1996 Legea, urtarrilaren 5koa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa (III. titulua); eta 26/2015 Lege Organikoa, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena.



30. gaia: 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeria-tik Begiratzeko Babes Integralarena.

31. gaia: EAEko lege-esparrua haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesteko: 2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena.

32. gaia: Arrisku- eta desanparo-egoerak: definizioa eta larritasun-mailak, larritasuna balioestea eta prozedura, maiatzaren 9ko 152/2017 Dekretuaren arabera. Balora Euskal Autonomia Erkidegoko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko tresnaren deseguneratzea.

33. gaia: Indarkeria fisikoak, psikologikoak, emozionalak eta/edo sexualak hezkuntza-eremuan eragindako balizko edozein babesgabetasun-egoera prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa. Sarrera eta kontzeptu orokorrak.

34. gaia: Eskolagabetzea eta absentismoa: Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Eusko Jaurlaritzaren programa.

35. gaia: 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. Atariko titulua.

36. gaia: 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa. I. eta II. tituluak.

37. gaia: EAEko adinekoei eragindako tratu txar fisiko eta ekonomikoak detektatzeko prozedura.

38. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 74/2007 Foru Dekretua, urriaren 11koa, mendekotasunaren ebaluaziorako eta orientaziorako prozedura arautzen duena.

39. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2019 Foru Dekretua, gizarte-inklusioren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duena.

40. gaia: 112/2023 Foru Dekretua, uztailaren 26koa, zeinaren bidez aldatu egiten den Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 2ko 58/2023 Foru Dekretua, zeinaren inklusio-prozesu espezializatuei lotutako prestazio ekonomikoari buruzkoa.

41. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 60/2011 Foru Dekretua, martxoaren 22koa, gizarte-inklusioreko laguntza berezia arautzen duena. Bizkaiko Foru Aldundiaren 79/2018 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, zeinaren bidez aldatu egiten den Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 22ko 60/2011 Foru Dekretua, gizarte-inklusioreko laguntza berezia arautzen duena.

42. gaia: Basauriko Udalak etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta gizarte-larrialdiko egoeretarako dituen harrera-etxeak arautzeko Araudia. (Udalbatzak 2021eko martxoaren 25ean eman zion behin betiko onespina, eta 2021eko ekainaren 15eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 112 zenbakidunean, argitaratu zen).

43. gaia: Basauriko etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren araudi erregulatzailea (Udalbatzak 2024ko apirilaren 25ean eman zion behin betiko onespina, eta 2024ko maiatzaren 13ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 91. zenbakidunean, argitaratu zen).

44. gaia: Basauriko udalerriko adinekoentzako eguneko arretaren zerbitzuaren araudia. (Udalbatzak 2024ko uztailaren 23an eman zion behin betiko onespina, eta 2024ko abenduaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 247 zenbakidunean, argitaratu zen).

45. gaia: Basauriko udalerriko adinekoentzako etxebizitza komunitarioaren zerbitzuaren Araudia (Udalbatzak 2024ko uztailaren 23an eman zion behin betiko onespina, eta 2024ko abenduaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 249 zenbakidunean, argitaratu zen).

46. gaia: Basaurin indarkeria matxistaren biktima direnei arreta emateko erakunde arteko koordinaziorako udal-protokoloa (2023) ([www.basauri.eus](http://www.basauri.eus)).

47. gaia: 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua arautu duena. Eta 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.



48. gaia: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. (Printzipio orokorrak).
49. gaia: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. I. eta II. tituluak.
50. gaia: EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioa.
51. gaia: Gizarte Lanaren Kode Deontologikoa (Gizarte Lanaren Kontseilu Orokorren 2021ko ekainaren 9ko asanblada orokorrean onetsitako testua).
52. gaia: 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.
53. gaia: Gizarte-lana: kontzeptua, oinarriak, helburuak, funtzioak eta printzipioak.
54. gaia: Gizarte-lanaren alorreko teknikak: elkarrizketa eta etxeko bisita.
55. gaia: Dokumentazioa gizarte-lanean: fitxa soziala, txosten soziala, historia soziala eta abar.
56. gaia: Gainbegiratze profesionala gizarte-lanean.
57. gaia: Taldeko gizarte-lana: metodoa eta talde-dinamika.
58. gaia: Gizarte-lan komunitarioa: diagnostiko komunitarioa. Ongizate-sistemen arteko koordinazioa. Laguntza informala. Gizarte-sareak eta herritarren parte-hartzea.
59. gaia: Diziplina anitzeko taldeak gizarte-zerbitzuetan, eta erakunde arteko koordinazioa.
60. gaia: Gizarte-lanaren esku-hartzea gizarte-bazterketa egoeran dauden atzerritarrekin: diagnostikoa, plangintza eta akonpainamendu soziala. Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta etorkinentzako arreta Bizkaian: funtzioak, baliabideak eta sareko lana.